

**Euskararen aldeko ahalegin soziala eta politikoa      Ipar  
Euskal Herrian**

Duela urte bi, 1992ko urriaren 3an egin zen Irisarrin “Ondarearen Eguna” izeneko I. jaialdia, EKE-Euskal Kultur Erakundeak antolatuta. Politikari eta agintari publikoetatik bertan izan ziren H.A. Andrieu Departamentuko Prefeta, F. Bayrou Pabeko Kontseilu Nagusiko burua eta A. Inchauspe, A. Lamassoure eta Destrade diputatuak, besteren artean. Euskal kulturaren ospakizunetan horrelakorik ikusi gabe geunden inoiz Iparraldean. F. Bayrouk utzi zuen egun hartan harriturik nonbait hainbat jende beraren hitz “berriengatik” eta jaulki zituen agintzariengatik, eta sinesgogor ere bai, orduko Herria astekariaren kronikari begiratzan badiogu. Sei proposamen konkretu mahaiaratu zituen orduan: kultur buxeta %25 handitzea, Ikastolei beste eskolei ematen zaien tratamendua ematea, Euskaltzaindia Departamentu mailan onartu eta ezagutzea, bideetako seinaleak euskaraz ere idaztea, Departamentuaren eta kultur elkartearen arteko harremanak kontratuz finkatzea.

Bi urte igaro dira; bitartean Parisko gobernuko Hezkuntza-ministro bihurtua da F. Bayrou. Eta aurtengo urriaren 15-16etan “Euskal Herriaren Ondarearen egunak” ospatu dira bigarren aldiz. Oraingoan Pariseko gobernuko ministro zen etortzekoa Bayrou; eta berarekin batera beste ministro bat: Alliot Mari; eta Michel Inchauspe eta Nicole Pery diputatuak. Jakinmin handia zegoen zer esango eta aginduko ote zuen aldi berean Pariseko Ministro eta Pabeko Kontseiluburu denak. Duela bi urte agindutakoan kontu eman beharko zuen; eta aitzina begira zerbat berririk esan. Lehenengo puntuari buruz harro azaldu zen, eta euskarazko “hitza hitz” esaldia erabiliz, agindutako guztiak beteak edo betetzear zituela baieztatu zuen. (Esan beharra dago, bitartean kalean zeudela EHE taldekoak kontrakoa salatzen); aitzina begira, ez zuen gauza berririk esan, aurrekoak (irratien subentzioa, errepideetako seinaleak, Euskaltzaindiaren onarpena...) beteaz joango dela besterik. —Aurrera begirako asmoen errepikatze horrekin ez al du orain bi urte agindutakoak beteak dituelako baieztapena gezurtatzen?— Izatez, bi urteotan aginduetakoetatik burutu behintzat Ikastolekiko hitzarmena bakarrik burutu da; beste denak bidetan dira nonbait. Dena dela, badirudi Irisarrin zeuden gehienek eta geroko iritziek gogo onik behintzat ez diotela ukatzen Bayrou jaunari.

Hasteko, gauza bat gertatzen zen guztiz harrigarria Irisarriko zeremonietan: Pariseko bi ministro etortzea euskal ondarearen jaialdira -egia da, hala ere, bata Departamentuko kontseiluburua ere badela eta bigarrena euskalerritarra dela eta bertatik diputatu Parisen-. Parisetik, edota Pabetik, euskal kulturaren onarpena aitortzera eta laguntza eskaintzera etortzeak itxuraz duen garrantziaren handiak beste alderdi bat nabarmentzen zuen: Ipar Euskal Herriko bertako aginte erabakitzailearen hutsunea.

Esan beharra dago Pariseko eta Pabeko agintari batzuren -bateren baten?- hitzak aldatu egin direla benetan. Alliot-ek esandako gauza orokorrekiak alde batera utzita, Bayrouk argi ipini zuen zenbait printzipio, orain arte agintari eta politikari frantsesengandik entzundakoetatik benetan aldutzen direnak: Elebitasunaren balio eta garrantzia (eta beraz euskararen ikastea traba ezezik, lagungarria dela frantzierarentzat eta beste hizkuntza gehiago ikasteko ere); euskarari euskarria ipini ezezik, bultzada eman beharra (promozioaren printzipioa); euskal ondarearen erdigunean euskara jartzea...

Izatez, Euskal Herriaren Ondarearen egunak antolatzen dituen EKEko arduradunen eta gonbidatuak ziren agintarien ahotan euskara zen mintzagai nagusi-nagusia, nabarmen ipiniz Euskal Herriaren kultur ondarearen muin-muinean dagoela euskara. Titulu guztiz egokia eman zion *Egin* egunkariak orain dela bi urteko Ondarearen egunaren kronikari: "El euskera, nudo del patrimonio" (92.10.5). Kontu handiko puntua da hori; izan ere, euskara ez da jotzen komunikazio-tresna soiltzat eta norbanakoaren eskubideen mailan bakarrik ipintzea; Herriaren kultur ondasun kolektibotzat hartzen da. Hortik euskaldunen euskararekiko eskubide kolektiboa baieztatzea ez legoke, irudiz, jauzi handia; baina oraindik ez zen horrelakorik sumatzen ministroaren hitzetan. Areago, euskararen ofizialtasuna onartzera eramango gintuzke printzipio horrek; baina horrelakorik ministroaren burutik urruti xamar zegoen. Alta, hortxe dago gakoa! Ramuntxo Kanblog eta Txomin Heguy-ren zenbait errebindikaziok horreraz apuntatzen zutela esan daiteke; baina modu metaforikoz bakarrik. Ez ziren ministroari aurrez aurre eta hitzez hitz "euskararen ofizialtasuna" eskatzera ausartu.

Bitartean horixe eskatzen ari zen kanpoan Euskal Herriaren Euskaraz elkarteko lagun-multzoa. Aretoan hitz limurtzaileak entzuten ziren bitartean, plazan oihu salatzaileak entzuten ziren. Euskal Herri osoan eta bereziki Iparraldean euskararen aldeko indar sozialen dialektikaren adierazgarria zen hura. F. Bayrou-k "gure eta EKEren arteko kolaborazioa eredugarria da" esaten zuen bitartean EHEk begien aurrean jarri zizkion, salatuz, ministroari oraindik aldatu gabeko errepedietako frantziara hutsezko seinaleak. Bertan argi zegoen, ordea, aurrez aurre ez zeudela EKE eta EHE, ministroa eta indar sozialak baizik, hauetako batzuk EKEkoen irriparre limurtzailearen eta beste batzuk EHEkoen haserre salatzailearen ordezkari. Bi aldetakoak datoz bat euskararen egoera hil-ala-bizikoa dela Ipar Euskal Herriaren batez ere, eta horren bizitzeak neurri politiko tinkoak eskatzen dituela. Hasteko behintzat, euskararen alde agertzen diren, eta itxuraz jokutzen duten, erakunde eta agintari publikoekiko-kasu honetan, Bayrourekiko-"lankidetzatza" ezberdina izanik, bi aldeetakoek bete dezakete beren funtzioa euskararen aldeko borroka sozialean; taktika politiko ezberdinak aparte, garrantzizkoa da, ordea, abiaburu eta helburu nagusi batzuk alde biek onartzea eta tinko galdatzea: euskararen ofizialtasuna, horren sustapenerako eta normalkuntzarako plangintza orokorra, Euskal Herri osorako homologazio-irizpidea euskararen normalkuntza-politikan, etab.

Bide horretatik doa Deiar dar koordinakundearen agiria, urriaren 9an kaleratu zuena eta erakunde publikoei aurkeztuko diena. Euskararen iparraldeko egoera eta dinamika aztertze eta aitzina begira ahaleginak koordinatzeko bateratu ziren Pizkundera, AEK, EHE eta Seaska elkarteak egun horretan; eta, hasteko, agiri hori onartu zuten beren jokabide-oinarritzat eta erakunde publikoei eskatzeko oinarritzko programatzat.

Deiadar koordinakundearen sendotzea kontu handikoa da euskararen normal-kuntzarako Iparraldeko mugimendu soziala indartzeko; bestalde, Euskal Herri osoko euskararen aldeko indar sozialen -talde, elkarte eta erakunde herritarren- arteko koordinazioa eta artikulazioa areagotzeko urratsa izan daiteke.

\*\*\*\*\*

## **Euskararen kaleko eta besteetako erabilera**

Erabilerak, erabilerak ematen duela euskararen normalkuntza sozialaren neurria; horixe errepikatzen da alde guztietatik azken aldiotan. Horregatik euskararen erabilera bultzatzea da helburua. Eta, horra! Kaleko erabilera neurtu ondoren, erabileraren datu optimistak agertu.

Zenbaki honetantxe dauzka irakurleak euskararen kaleko erabileraren neurketaren metodoa, datuak, analisiak. Ondorioren batzuk ere badaude iruzkinetan; eta aurrera begira, horietan sakontzea eskatuko du ikerlan soziologiko garrantziko horrek. Aldizkariaren txoko honetatik ere gogoetatxoren bat egitea egokia izan daiteke, neurketaren datu adierazgarriak ikusi ondoren.

Ez dago zalantzarik erabileran neurtzen dela euskararen osasuna eta horren normalkuntza soziala. Kaleko erabilera neurtu da hemen; eta uste baino emaitza optimistagoak agertu ditu; hala ere, kaleko komunikazio-aukeretatik %11 tan bakarrik erabiltzen da euskara. Kontutan eduki behar da, bestalde, lagunarteko konfiantzako egoera dela normalean kalean gertatzen dena eta lagunarteko hizkera informala dela bertan normalean erabiltzen dena; komunikazio-taldeen (senideen, lagunarteen edo talde akzidentalaren) konposizioak ipintzen dituen baldintzak aparte, badirudi askeen hortxe izan daitekeela euskalduna euskaraz egiteko; bestelako komunikazio-situazio formalagoetan (lan profesionalean, administrazioko edo zerbitzu sozialetako harremanetan) askozaz txikiagoa izango da noski euskararen erabilera.

Badirudi optimismoa erabileraren kopuruetatik baino gehiago datorrela, euskaldunaren bere hizkuntzarekiko leialtasunagatik, erabilerari dagokion leialtasun praktikoagatik, alegia; baina neurtu leialtasun hori kantitate matematikotan neurtu gabe dago. Horregatik zenbaki honetako zifretatik eta horien analisitik harantza goaz hemen.

Orain dela hiru urte egindako neurketan nabarmen geratu zen, euskalduna, euskaraz dakiena, leiala dela bere hizkuntza erabiltzen, kalean behintzat —bertako baldintzak kontutan edukita noski—; horregatik ez da zuzena —zuzengabekeria da— euskaraz dakitenean gain botatzea euskararen normalkuntza sozialak aurrerapen motela izanaren erantzukizun nagusia edo bakarra, behin baino gehiagotan arduradun politiko batzuren ahotatik entzun izan dugun bezala; bigarren neurketa honek euskaldunaren atxekimendu praktiko handia berretsi egin du, baldintza sozialen mugak ere gaintuz nolabait.

Euskara erabiltzean euskaldunak duen leialtasun praktikoak, ordea, bi eragozpen aurkitzen ditu: euskararen ezagutzarik eza edo ezagutza eskasa, batetik (ezagutza

arrunta, kulturala, teknikoa, profesionala, eta abar); eta eragozpen sozialak, bestetik: komunikatzeko euskara erabili ezina, solaskideak (bere lagunak, senideak, lankideak, lantegiko ugazabak, funtzionariak, bere medikuak, bere abokatuak, eta abarrek) erabiltzen ez duelako; azken batez, inguruneak huts egiten diolako; baldintza sozialek erdarara “behartzen” dutelako.

Horregatik erabileraren inguruan zentratuko den hizkuntz politikak, nabarmen geratu den euskaradunaren leialtasun praktikoa oinarriturik, erabilera zabaltzeak aurkitzen dituen oztopoak kentzera eta hori areagotzeko baldintzak hobetzera jo behar du: hau da, funts-funtsean euskararen ezagutza zabaltzera (haur eta gazteen irakaskuntza euskaldunaren bidez, erdaldun helduen euskalduntzearen bidez, euskaldun helduen alfabetatze orokorraren eta profesionalaren bidez).

Baina, bestalde, euskaldunon aldetiko euskararen erabilera zabalduko baldin bada, hori erabiltzeko aukerak ugaritu eta ingurunea zabaldu behar dira, zerbitzu sozialak, administrazio publikoa, lan-mundua, eskaintza kulturala, eta abar benetan eta praktikan euskaldunduz. Euskalduna bizi eta komunikatzen deneko eremuak irabazi behar ditu euskarak berak, euskaldunak horietan euskara erabiliko baldin badu. Politika ofizialetik, ekimen pribatutik eta herritar euskaldunon erantzunetik etorriko da hori.

Pozgarria da alde horretatik, aseguru-etxe batek hartu berri duen erabakia eta ireki duen bidea, kontratuan eta bezeroekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera emanez. Bestelako eremuetan ere antzeko ateak ireki beharra dago. Horra herritar euskaldunon euskararekiko leialtasun praktikoa neurtzeko beste apostu bat. Izan ere, zerbitzu sozialetatik datozen horrelako ekimen pribatuek arrakastarik izango baldin badute eta aurrera joko badute, euskaldunon onarpenaren et

\*\*\*\*\*

## **Urgentziako kronika: EAEko Gobernu akordioan Euskara galtzaile?**

EKBk, Euskal Autonomi Elkarteko hauteskunde kanpainan, eta ondoren, gobernu osaketarako negoziaketa garai honetan zenbait alderdiren jarrerak gogor kritikatu ditu bere azken prentsaurrekoan, gobernu akordio orokorraren barruan, euskara eta hizkuntz politika negoziaketetarako joko politikarako erabiltzen delako.

Euskal Kulturaren Batzarreak bere Nazio Batzordean kezka larri bat mahaigaineratu zuen, hau da, “gobernu akordio orokorraren barruan euskara galtzaile atera daitekeela”. PSE-EE alderdiak jarritako aurrebaldintzak irakurri ondoren, bilkuran mahaigaineratutako kezka areagotu egin da.

Jarraian doakizuen, EKBk gai honi buruz kaleratutako agiriaren laburpena duzue.

Ezin dira, alderdi jakin bateko botoak zuzenean euskararen kontraktotzat ulertu, boto emaleen iritzien konplexutasuna kontutan hartu gabe. Are gehiago, oihartzun soziala lortu asmoz euskararen normalkuntza prozesua gatazka arazo politiko bihurtu eta

artifizialki puztu nahi duten alderdien jarrera salatu nahi da. Okerrago oraindik, hauteskunde kanpainagaraiari kutsu euskaltzaleko diskurtsua egin ondoren irabazitako botoak ezin dira euskararen aldeko hizkuntz politika makaldu nahian erabili.

Euskararen aldeko politika ausartagoa eskatzen duten herritarren gehiengoaren borondatea, Eusko Jaurlaritzak egindako azken inkesta soziolinguistikoan argi ageri da. Borondate hori, gurasoen gehiengoak bere seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza aukeratzean, 56.000 heldu baino gehiagok euskara ikastea eta euskararen aldeko ekitaldietan-Araba Euskaraz, Korrika, Kilometroak, Ibilaldia, Durangoko Azoka-ehundaka eta ehundaka mila lagunek parte hartzean berresten da.

Hori dela eta, EKBk dei sendoa egin nahi die gobernu-ardura duten edo eduki nahi duten alderdiei euskararen kalterako izan daitezkeen jokupolitikoetan sar ez daitezen, halaber, euskararen aldeko erakunde guztiei, eta herritarrei oro har, arazo honen larritasunaz jabe daitezen eta konponbiderako bitartekoak jar ditzaten, bakoitzak bere ahalmenen arabera.